

FUNTSEZKO JARDUERAK

Bazkideen artean kapital falta dugunez, inbertitzaileak behar ditugu proiektua aurrera eramateko. Baita langileak ere kontratatu behar dira softwarearen funtzionamendua ziurtatzeko eta aplikazioa funtzionamenduan izateko. Hornitzaileen produktuak gure enpresaren bulego edo biltegira eramango genituzke eta ondoren guk banatuko genituzke. Materialari dagokionez, garraioa (kotxeak, furgonetak...) eta lokalaz aparte, informazioa prozesatzeko ekipamendua eta altzariak ere beharko ditugu. Programatzaileen lana, gure aplikazioa funtzionamenduan mantentzea izango da; enpresa hazten laguntzen dute inbertitzaile eta beste langileekin batera.